

## -Kale nagusia:



### SENDIEN ARMARRIEK JANTZITAKO KALEA

Begoña etxea (XVI. mendea): Okerruri sendiarena jatorriz. Familiako kiderik garrantzitsua Martin Martinez de Okerruri dugu. Komunitateen gerran Ayala etxeke azken Jaunak Gaztelako erregearen aurka egin zuen, ez herriak. Hori dela eta, Karlos I.ak leial titulua eman zion herriari, Pedro Lopez de Ayala kondeari herrian zuen nagusitasuna kendu zion bitartean. Ondorioz, kondearen setioa jasan zuen herriak, eta Martin Martinez de Okerruri alkatearen agindupean babestu ziren. Etxearen ezkutu nagusiak Erdoñana, Bikuña eta Lazarragarren armak erakusten ditu.

Hurrengo etxean herriko ezkuturik zaharrena izan daitekeena topatzen dugu: Lazarragatarrena. 1564ko sutearen aurrekoa dela uste da. Ezkutuak Oinaztar sendia irudikatzen duen oreina dakar galsoroan, eta hari erasoan ari den arrano Ganboatarra. Bere errealismoagatik nabarmentzen den eredua da.

Hurrena, kalearen amaieran dagoen Azkarraga etxea da (XVI-XVII. mendeak). Portadaren gaineko ezkutuak Diego Gartzia de Zuazo fundatzailearen armak erakusten dizkigu. Bigarrenak, ordea, Eulate (Nafarroa) leinuaren armak erakusten ditu. Azken ezkutu hau interesgarria da ezkerrera begira dagoelako. Heraldikako arauari jarraiki, etxean sasikume bat jaio izanaren adierazle. Ezkutua jasotzen duten bi lehoiak barre algaraka daudela dirudi ere, etxeko lotsaren jakitun izango balira bezala. Haatik, badira bi kasketak elkarri aurpegia ematearen arrazoa estetika erabaki batean baino ez dagoela pentsatzen dutenak. Beste gauzen artean bere teilatu-hegal aberatsa nabarmentzen da.